



# INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA: MEZULARITZA-ZERBITZUA

Argitalpen-data: 2016

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA

Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

**EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA** Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.





## GURE ERABAKIA NUESTRA DECISIÓN:

### INGURUMEN-INPAKTU TXIKIAGOA DUEN MEZULARITZA-ZERBITZUA KONTRATATZEA

Administrazioak eta entitate pribatuek etengabe erabiltzen dituzte mezularitza-zerbitzuak. Honako hauetarako erabiltzen dituzte gehienbat:

- ⇒ Barne-posta: bidalketak entitate bereko eraikinen artean egiteko.
- ⇒ Kanpo-posta, bai herri-eremuan, bai EAEn. Geografia-esparrua zabalagoa izan daiteke - Espainiako beste leku batzuetara edo nazioartera —, baina horiek ez dira fitxa honetan sartzen.

Zerbitzu honek ingurumenean eragin negatiboa duela kontuan hartuta, nola minimizatu ingurumen-inpaktua, kontratazioa eta erosketa berdea erabiliz? Ondoren, zenbait jarraibide zehazten da.



## ZER JAKIN BEHAR DUGU

Mezularitza-zerbitzu berdeak ingurumen-inpaktua ahalik eta gehiena gutxitzea du helburu. Xehetasunen berri izateko, hauek dira horrekin lotutako ideia batzuk:

### Zenbait kontzeptu nagusi

#### **Mezularitza-zerbitzuaren zer alderdik eragiten dituzte ingurumen-inpaktu negatiboak?**

1. Bidalketa-maiztasuna eta erabiltzen den garraioa, sortzen dituzten CO<sub>2</sub>-emisioengatik, beste gas poluitzaile batzuen emisioengatik eta zarataemisioarengatik.
2. Erabilitako ontziratzeko-sistema eta horren materialak.

#### **Zer neurri har daitezke inpaktu horiek gutxitzeko?**

- Bidalketa-kopurua arrazionalizatzea eta murriztea.
- Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten garraio-bideak aukeratzea mezularitza-zerbitzuetarako.
- Emisio gutxiko ibilgailuak eta eko-gidatzean trebatuta dauden langileak dituen enpresa kontratatzea.
- Ahalik eta gutxien erabiltzea bilgarriak, bilgarri berrerabilgarriak —hala nola erabilera anitzeko gutun-azalak—, kaxa berrerabilgarriak eta ingurumen-inpaktu txikiagoa duten materialak (birziklatuak eta birziklagarriak eta/edo biodegradagarriak).

#### **Arlo horri lotutako ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?**

- Ibilgailuetarako informazio-etiketak: 1999/94/EE Europako Direktibak agintzen duenez, salgai dauden ibilgailu berri guztiek ibilgailuaren kontsumoari eta kilometroko sortzen duten CO<sub>2</sub>-emisioei buruzko informazio-etiketa eduki behar dute, nahitaez. Horren ondorioz, bi osagai dituen etiketatze-sistema ezarri da:

**Zenbait kontzeptu nagusi**
**INFORMAZIO-ETIKETAK**
**INFORMAZIO-ETIKETAK**

**Nahitaezko etiketa.** Modelo bakoitzak - salmenta-tokian ondo ikusteko moduan dela -hauek adierazi behar ditu: kontsumo-datuak eta CO<sub>2</sub>-emisioenak. Fabrikatzaileak eman behar ditu datu horiek.

**Borondatezko etiketa.** Konparaziozko balorazio-sistema haztatua da. Energiaeraginkortasunaren arabera sailkatzen ditu ibilgailu guztiak, A-tik (eraginkorra) G-ra (eraginkortasun gutxiena duena) bitarteko eskala batean.

En todos los puntos de venta puede obtenerse gratuitamente una guía sobre el consumo de combustible y las emisiones de CO<sub>2</sub> en la que figuran los datos de todos los modelos de automóviles de turismo nuevos.

Marca/modelo:

Tipo de carburante:

| CONSUMO OFICIAL<br>(SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE) |          |
|---|----------|
| Tipo de conducción  | l/100 km |
| En ciudad   |          |
| En carretera  |          |
| Media ponderada   |          |

EMISIONES ESPECÍFICAS OFICIALES DE CO<sub>2</sub>  
(SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)

g/km

El consumo de combustible y las emisiones de CO<sub>2</sub> no sólo dependen del rendimiento del vehículo; también influyen el comportamiento al volante y otros factores no técnicos. El CO<sub>2</sub> es el principal gas de efecto invernadero responsable del calentamiento del planeta.

**Eficiencia Energética**

|  |                 |
|--|-----------------|
| Marca  | X               |
| Modelo   | Y               |
| Tipo Carburante  | Gasolina        |
| Transmisión  | Manual          |
| Consumo de carburante<br>(litros por cada 100 kilómetros)                                      | 6 litros/100 km |
| Equivalencia<br>(kilómetros por litro)   | 16,7 km/litro   |
| Emisión de CO <sub>2</sub><br>(gramos por kilómetro)   | 144 g/km        |
| Comparativa de consumo<br>(con la media de los coches de su mismo tamaño a la venta en España) |                 |
| Bajo consumo   |                 |
| Alto consumo   |                 |




\* En todos los puntos de venta puede obtenerse gratuitamente una guía sobre el consumo de combustible y emisiones de CO<sub>2</sub> en la que figuran los datos de todos los modelos de automóviles de turismo nuevos.  
 \* El consumo de combustible y las emisiones de CO<sub>2</sub> no sólo dependen del rendimiento del vehículo; también influyen el comportamiento al volante y otros factores no técnicos. El CO<sub>2</sub> es el principal gas de efecto invernadero responsable del calentamiento del planeta.

- Energia-sailkapenari buruzko etiketa nahitaezkoa ez denez, urtero merkatuan jarri diren ibilgailu berri guztiei buruz IDAEk argitaratzen duen gida kontsulta daiteke <http://coches.idae.es/portal/basedatos/marcamodelo.aspx>.
- Halaber, ibilgailuen fitxa teknikoetan edo ibilgailuen EE homologatze-ziurtagirietan, EURO estandarrari eta zarata-mailei buruzko informazioa topatu daiteke.
- Motorrentzako ingurumen-ziurtagiriak: halakorik ez dago oraingoz. Errekuntzagasen edo zarataren emisioei buruzko informazioa motorren EE homologatzeziurtagirietan azaltzen da.
- Paperezko/Kartoizko gutun-azal eta kaxetarako Ekoetiketak: paper birziklatuzkoa izatea (% 65, kontsumitu ondokoa), honen bidez: Aingeru Urdina ekoetiketa (I. motako ekoetiketa):



## Zenbait kontzeptu nagusi

- Plastiko biodegradagarrien/konpostagarrien estandarrak: nazioartekoak dira, eta logotipoa erakunde ziurtagiri-emaile bakoitzaren arabera da. Nolanahi ere, Europako EN 13432 estandarra betetzen dela bermatuko da.

|   |   |
|---|---|
| DIN CERTICO (Alemania), Alemaniako estandarraren arabera (DIN V 54900), Europakoaren arabera (EN 13432) eta AEBkoaren arabera (ASTM D6400) ziurtatzen du; azken hori da malguena: |  |
| AIB Vincotte (Belgika), Europako estandarraren arabera ziurtatzen du:   |  |
| Biodegradable Products Institut / US Composting Council (AEB), AEBko estandarraren arabera (ASTM D6400) ziurtatzen du:  |  |

- Enpresen beren ziurtagiriak. Mezularitza-enpresek Ingurumena Kudeatzeko Sistema nagusietako baten ziurtagiria izan dezakete (EMAS, ISO 14001, Ekoscan...). Ziurtagiri horiek legea betetzen dela eta zerbitzua ematean ingurumen-jardunbide onak betetzen direla bermatzen dute. Hortaz, enpresak aukeratzekoan, lehentasuna eman dakieke ingurumen-kudeaketa sistema baten ziurtagiria dutenei edo erantzukizun sozial korporatiboko politikak dituztenei.



## KONTRATAZIOK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Erabaki edo eragiteko aukera dugu ingurumen-irizpideak dituzten mezularitzazerbitzuak kontratatzean, zenbait unetan. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

### ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

#### 1. unea. Beharrak

Gure mezularitza-beharrak optimizatzeko, beharrezkoak dira hauek:

- Bidalketak arrazionalizatzea, barne-postako eta kanpo-mezularitzako bidalketa-kopurua gutxitu daitekeen aztertuz. Horretarako, jardunbide egokiak garatuko ditugu; esaterako, hauek:

## 1. unea. Beharrak

- ⇒ Ohiko bidalketak ordezkatzeko dituzten teknologia berriak erabiltzea. Adibidez, informatika-euskarriak (web-orriak) erabiltzea tamaina handiko agiriak igotzeko, eta posta elektronikoz adieraztea horiek deskargatu daitezkeen tokia.
- ⇒ Barne-postako zerbitzua antolatu eta optimizatzea: itzuli gutxiago, paketeak harrera-lekuan biltzea eta zerbitzuaren arduradunari adieraztea zerbait jaso behar den ala ez (30 minutu lehenago, adibidez), joan-etorriak aurrezteko.

- Eraikin bereko sailen artean (edo, oro har) koordinatzea, mezularitza-enpresa egunean behin bakarrik joateko erakunde horretara<sup>1</sup>.
- Argitalpenen bidalketa estentsiboak egiteko, INPRENTA- ETA ARGITALPEN-ZERBITZUA laburpen-fitxan zehaztutako murrizketa-neurriak hartu behar dira kontuan.

Barne-postako zerbitzuan, bilgarriak arrazionalizatzea: barne-bidalketak egiteko erabilera anitzeko gutun-azalak eta kaxak erabiltzea eta materiala bildu duten zentroetara bilgarriak itzultzeko zerbitzua eratzea, toki batean gutun-azal eta kaxa gehiegi eta beste batean gutxiegi egon ez dadin.

## ZER ETA NOLA KONTRATATU?

### 2. unea. Kontratatu beharreko zerbitzuaren edukia zehaztea

Kontratatu beharreko edukia egokiro zehazteko, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Eraginkorra da —eta egingarria— mezularitza-zerbitzuaren hainbat lote esleitzea, erakundearen beharren arabera. Horretarako, aintzat hartu behar ditugu honako hauek:
  - ⇒ Mezularitza-zerbitzuaren estaldura: hirikoa edo hiri artekoa (EAE barruan).
  - ⇒ Eskura dauden garraiobideak: bizikleta, motorra, autoa edo furgonetak (handiak nahiz txikiak).
  - ⇒ Bidalketa-gaiaren neurriak, bolumena eta pisua.
- Bidalketa ugari egin behar bada, pertsona-kopuru jakin bat eta zerbitzuari lotutako ibilgailu zehatz bat eska ditzake mezularitza-zerbitzua kontratatzen duen erakundeak. Horrela:
  - ⇒ Kontratutako ibilgailuak eta horien ezaugarriak ezagutuko dira, eta, beraz, hobeto kontrolatuko da zerbitzua.
  - ⇒ Langileek eko-gidatzean duten trebakuntza-maila jakin daiteke.

<sup>1</sup> Sektoreko datuen arabera, % 25 besterik ez dira berehalakoak; % 75 urgenteak edo erdiurgenteak dira, eta, beraz, berehalakoak ez diren bidalketak koordinatzeko aukera dago.

## 2. unea. Kontratatu beharreko zerbitzuaren edukia zehaztea

Esleitutako langileak etengabe trebatuko dira jardunbide egokietan eta ohitura iraunkorretan.

## 3. unea. Zerbitzuaren kontratazioa

Nahi dugun mezularitza-zerbitzua planifikatu eta zehaztu ondoren, ingurunea zaintzen duen kontratazioa egiteko ingurumen-irizpideak txertatu behar ditugu honako esparru hauetan: enpresaren hautaketan, erabiliko den garraioan, gidatzeko moduan eta biltzeko sisteman. Irizpideak oinarrizko ingurumen-eskakizunaren arabekoak edo eskakizun aurreratuaren arabekoak izan daitezke.

- **Enpresak hautatzeko kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak:**
  - ⇒ Mezularitza-zerbitzurako, Ingurumen Kudeaketako Sistemaren batekin (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo antzeko bat) ziurtatuta dauden enpresak hautatzea gomendatzen da.
  - ⇒ Horrelako ziurtagiririk duen enpresarik aurkitu ezean, lan-osasuna eta ingurumena babesteko lan-prozedurak eta -jarraibideak eratzea eskatu behar zaio hautatutako enpresari kontratuan, bai eta horiek aplikatzeko beharrezko mekanismoak ezartzea ere (prestakuntza bidez, erregistroen bidez eta abarren bidez).
- **Ibilgailuetarako ingurumen-irizpideak:**
  - ⇒ Irizpide orokor gisa, mezularitza-enpresaren ibilgailuen CO<sub>2</sub>-emisioak, errekontza-emisioak eta zaratarenak ahalik eta txikienak izango dira (aurkeztutako agiri eta ekoetiketei buruzko informazioaren arabera).
  - ⇒ Hiri arteko kanpo-mezularitzarako —udalerritik kanpo eta EAE barruko beste herrietara—, ezin da berariazko ibilgailu edo gidaririk esleitu. Hortaz, enpresaren ibilgailuen (furgoneta txiki eta handiak) ingurumen-ezaugarriak balioztatzeko, CO<sub>2</sub>-emisioak, bestelako errekontza-gasen emisioak (EURO estandarraren arabera) eta zaratarenak hartuko dira kontuan.
  - ⇒ Hiriko kanpo-mezularitzarako eta barne-postarako, lote guztiak definituko dira eta zerbitzu-mota bakoitza zein eremutan edo egoeratan kontratatu behar den zehaztuko da. Inpaktu txikiena duten garraiobidea eta ibilgailuak aukeratuko dira beti:
    - **Bizikleta bidezko mezularitza:** udalerrian bertan egiteko zerbitzua izan behar du, eta kontuan hartuko dira pisua, bidalketaren dimentsioa eta distantzia. Bidalketa 5 kg, 25 l edo 40X30X25 cm baino handiagoa bada, zerbitzua furgonetaz egingo da. Zerbitzu horretarako enpresek distantzia handiagoa

### 3. unea. Zerbitzuaren kontratazioa

egin behar badute edo karga areagotu, aztertu egingo da furgonetaren erabilera.

- **Motozikleta bidezko mezularitza:** bizikletak erabili ezin diren guneean erabiliko da, baita bizikletaren aukerarik ez duten udalerrietako erdigunean ere.
  - Mezulariak esleitzeko adina bidalketa badago, zerbitzu horretako mezularien eta motozikleten zerranda aurkeztu behar du enpresak, baita zerbitzuaren ingurumen-ezaugarriak ere.
  - Mezulariak esleitzeko adinako eskaririk ez badago, motozikleten ingurumen-ezaugarriak balioztatuko dira (CO<sub>2</sub>-emisioak, errekuntzagasen emisioak eta zaratarenak).
- **Furgoneta bidezko mezularitza:** zerbitzua bizikletaz edo motoz egiteko neurri, pisu edo distantzia handiegia dagoenean erabiliko da furgonetazerbitzua.
  - Mezulariak esleitzeko adina bidalketa badago, zerbitzu horretako mezularien eta furgonetaren zerranda aurkeztu behar du enpresak, baita zerbitzuaren ingurumen-ezaugarriak ere.
  - Mezulariak esleitzeko adinako eskaririk ez badago, enpresaren ibilgailuen (furgoneta txiki eta handiak) ingurumen-ezaugarriak balioetsiko dira (CO<sub>2</sub>-emisioak, errekuntza-gasen emisioak (EURO estandarraren arabera) eta zaratarenak

- **Gidatzeko moduaren ingurumen-irizpideak:**

⇒ Enpresako langileak —bertakoak zein autonomoak— gidatze eraginkorrean trebatzeko politika izatea balioetsiko da, baita dagozkion ziurtagiriak aurkeztea ere.

- **Biltzeko sistemaren ingurumen-irizpideak:**

⇒ Oro har, kontratua egiten duen entitateak bilduko ditu bidali beharreko agiri edo objektuak (lehen aipatutako jardunbide egokiei jarraituz); mezularitza-enpresak konpromisoa hartzen du berriro ez biltzeko; horrela, hondakin gehiegi sortzea saihesten da.

⇒ Barne-postako eta kanpo-mezularitza ez-urgenteko zerbitzurako. Mezularitza-enpresak kaxa berrerabilgarrietan banatu eta jasoko ditu paketeak, eta material birziklatuak erabiltzea balioetsiko da. Zerbitzuari buruzko txostenean, erabiltzen den kaxa-mota zehaztu behar da.

⇒ Halaber, bidalketak onartu eta jasotzean enpresak paper birziklatuzko agiriak erabiltzea balioetsiko da, bai eta sistema elektronikoak ere.

### 3. unea. Zerbitzuaren kontratazioa

- **Zerbitzurako beste irizpide batzuk:**

Enpresa esleipendunak zerbitzuei eta ingurumen-adierazleei buruzko txostenak aurkeztu behar ditu aldizka; langileak kontzientziazteko erabiliko da informazio hori, baita honako hauek kalkulatzeko ere:

- ⇒ Garraibidez egindako joan-etorriak eta kilometro-kopurua, portzentajea guztira eta destinoaren arabera (hirikoa eta EAE barruko herrien artekoa).
- ⇒ Sortutako CO<sub>2</sub>-emisioak.
- ⇒ Administrazioak egindako bidalketa guztien zerrenda egin behar da, egunaren, helmugaren eta garraibidearen arabera ordenatuta (bidalketa bakoitzaren eskaera-ordua eta eskaera egin duen saila ere adierazi behar dira).

Irizpide horietatik guztietatik garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak balioetsi edo exijitu behar ditugu kontratazioan.

Administrazio batek mezularitza-zerbitzua prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi badu, lhobek argitaratutako Kontrataziorako eta erosketa publiko berderako eskuliburu praktikoan jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (hiru eskakizun-maila daude: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaintasun-maila), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.



## INFORMAZIO GEHIAGO...

### Lotura interesgarriak

- [www.ihobe.eu](http://www.ihobe.eu) webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.